



## Erronka berriak aurkeztu ditu Bertsozale Elkarteak

**TOLOSALDEA** ▶ Gipuzkoako Bertsozale Elkartek Batzar Nagusia egin du Alegian, balantzea egin eta aurrera begira jartzeko

**ZUZENDARITZA** ▶ Beste urtebetez lehendakari izaten jarraituko du Felix Irazustabarrena alegiarrak, eta idazkari Aitor Mendiluzek ▶ 5



N. URBIZU

## Zuhaitzak landatu dituzte Langaurren

**ALEGIA** ▶ Intxaurrenondoak, urkiak eta haritzak landatu zituzten atzo, Zuhaitz Egunean, Alegiako eskolako eta Aralar institutuko ikasleek ▶ 5



**TOLOSALDEA** ▶

## Ekitaldiak Gerestaren hilketaren urtemugan

Bihar beteko da urtebete Aranalde eta Altuna atxilotu zituztela ▶ 4, 6

**LEITZA** ▶

## Eskolak euskalduntzeko eskaria ▶ 7

**TOLOSA** ▶

## Arzelus organo-joleari omenaldia

Santa Maria Kaperaren eta Udalaren eskutik ▶ 3

**garces**  
Allzariak

Jarduera komertzialak  
Garces Basoko altzarietan jarraitzen du

Tel.: 943 69 29 65  
Larrea auzoa  
20150  
BILLABONA  
(Gipuzkoa)



DEKORAZIOA

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZak gutunak mozteko eskubidea du

## Mila pertsona baino gehiago

Voith-Gorostidi eremuko plan-gintza aurrera doa. Dakigunez, 675 etxebizitza berri eraikiko dira. Hauetatik 135 «Babes Ofizialekoak» izango dira, hau da, legeak derrigorrez ezartzen duen %20a. Gainontzekoak, hots, 540, etxebizitza libreak izango dira, nahiz eta hauetatik 290 Udalak «Toki-babeseko etxebizitza» izen panpoxaren azpian aurkeztu.

Oso gaizki dago etxebizitzaren gaia Euskal Herrian. Hain dago gaizki, «mila pertsona baino gehiago» 32 milioiko etxebizitzaren gainera jausten dela, mauka bailitzan. Edo horrela saldu nahi digu udaletxe-ko norbaitek, behintzat. 80 me-

tro erabilgarri izango duen etxebizitzaren truke 32 milioi ordainduko dituenari galdetu nahiko genioke guk. Hain dago gaizki etxebizitzaren arazoa, hain desitxuratu dago gure pertzepzioa egin nahi duguten iruzurra ez antzemateko? 32 milioiko etxebizitza «babes-tua» omen...

Alkatea eta PNV herritarren salbatzaile moduan aurkezten dira. Korrika joan beharko genuke eskerrak ematera. Azken 25 urteetan etxebizitzaren arazoa konpontzeko ardura handiena izan dutenak, egungo egoeraren erantzule nagusiak, orain salbatzaile moduan ageri zaizkigu...32 milioiko etxebizitzekin. Hori muturra!

Egia da «Babes Ofizialeko» etxebizitzak esleitzeko indarrean dagoen sistema ez dela zu-

zena. Hain zuzen ere, eskubideak ezin baitira zozketatu. Gainera, ezartzen diren baremoetatik kanpora geratzen da hainbat herritar. Araua moldatu bitartean, egokia deritzogu Udalak zuzenean esleitu ditzakeen etxebizitza multzoak eskuratzea, tokian tokiko beharrei egokiago erantzun ahal izateko. Baina horrek ez du zerikusirik etxebizitza horien salneurriarekin.

Eta horren harira, eskaera xume bat egin nahi diogu alkateari: azaldu mila pertsona horiei, eta bide batez guri, zergatik «Toki-babeseko etxebizitzak» balio duen 32 milioi eta ez 15, 22 edota 50. Azaldu Tolosako herriari zein azterketa ekonomikotan oinarritu zaren etxebizitza horiei salneurri hori jartzeko. Guk badugu bat,

Tolosako Udalak ofizialki eskatu duen bakarra, eta haren arabera 32 milioiko etxebizitza horiek 20 milioitan saldu zitezkeen. Nola? Norbaitek diru gutxiago irabazita. Baina zuk noren interesak babesten dituzu, alkate jauna? Azaldu herritarroi nora joan diren 3.480 milioi horiek.

Hemen zera gertatzen da, etxebizitza eroslearen lepotik hainbat lotsagaberen soldadak, herri honetako politika industrial eta zenbait alderdi politikoren «zuloak» finantzatu behar direla...eta gero «etxebizitzaren arazoa» darabilzu ahotan, alkate jauna!

Orain gutxi, Javier Dean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailburuordeak (IU), Lurzoruaren Lege berriari buruz ari zela, honela baieztatu zuen:

«Lortutako emaitzak (...) ezker abertzalea indar aurrerakoiengurdira batzera bultzatzea nahi genuke (...) elkarrekin espekulatzaila eta ordezkatzaren dituzten indarrei aurre egin ahal izateko».

Ez dugu inolako zalantzarik bigarren multzo horretan aurkitzen direla PNV eta gure alkate jauna. Hori jakin arren bai Gasteizen eta bai Tolosan haiekin esertzen diren ustezko indar aurrerakoiengurdira beste gauza bat da. Ezker abertzalea beti egon da, eta hemendik aurrera ere egongo da, espekulatzailen aurka eta herritarren alde. Eta horretan inork ez du zalantzarik!

ANTTON IZAGIRRE, BEGOÑA ALDALUR, HEKTOR ESPIN, IBAN ORTIZ  
ETA AITOR IZTUETA ▶ TOLOSA BIZIRIK  
EKIMENEN HAUTETSIAK (TOLOSA)

## GIZARTEA ▶



## Diagnostikoaren aurkezpena

Datu ofizialak apirilaren hasieran aurkeztuko badituzte ere, herenegun iluntzean Tolosako Udaleko Berdintasunerako departamentuak landu duen diagnostikoa aurkeztu zuten, Errotan. Azterketa kualitatibo eta kuantitatibo baten bitartez, emakumearen egoeraren berri emango dute emaitzek, besteak beste. E. E.

## GIZARTEA ▶

## Erakusketa, hitzaldia eta dokumentala, arrazakeriaren aurka

Ekitaldiak Arrazakeriaren Aurkako Astearen baitan antolatu dituzte, Kultur Etxean, astelehenean, 19:00etatik aurrera



Ni ere pertsona erakusketa izango da ikusgai Kultur Etxean. HITZA

13:00etan helduko da, eta bertan amaizuko da.

## 'Ni ere pertsona' erakusketa

Bestalde, dokumentalarekin eta hitzaldiekin batera, aste guztian zehar —astelehenetik ostiralera bitartean—, *Ni ere pertsona* izeneko erakusketa ikusi ahal da Kultur Etxean, 18:00etatik 20:00etara. Bizkaiako SOS Arrazakeriak antolatutako erakusketak munduko gizarte eta kultur ezberdinetan zehar bidaiatzeko aukera ematen die ikusleei. 30 panelez osatutako lana da, zeinean 14 aurpegi eta 14 herriei buruzko informazioaren bidez gure gizartean ematen diren jarrera arrazistak eta aurreritzi faltsuak aztertzen diren. Helburu zehatzak ditu erakusketak: Euskal Herrian bizi diren etorkinen errealitatera hurbiltzea; munduko herrialde desberdinetako egoera ezagutzeko; etorkinen inguruan herritarrek dituzten iritzietan hausnarketa egitea, faltsuak eta okerrak direnak aldatzeko; eta inmigratzioa Euskal Herriko errealitatearen atal bat dela ulertzea.

## ERREDAKZIOA

Datorren astean, Arrazakeriaren Aurkako Astea izango da, eta Gipuzkoako SOS Arrazakeriak ekitaldi bat antolatu du Tolosan. Hilaren 20an, astelehenarekin, *Hegoaldeko Muga* izeneko dokumentala izango da ikusgai, hain zuzen, Antonio Maria Labaien kultur etxean, 19:00etatik aurrera. Eta, ondoren, Agustín Unzurrunzagak

mugen inguruko hitzaldi bat emango du.

Halaber, Arrazakeriaren Aurkako Asteari amaiera emateko, datorren igandean, hilaren 26an, arrazakeriaren aurkako martxa antolatu dute Donostian eta arduradunek tolosar guztion parte-hartzea eskatu nahi izan dute. Hala, Trintxerpeko azokatik abiatuko da, 11:30ean. Hiriko kaleak zeharkatu ondoren, Boulevardera

aranburu jauregia

T o l o s a

Dorleta Ortiz de Elgea

pintura

apirilaren 1a arte

Enrique Zaldua

“poesía móvil”  
pintura

apirilaren 22a arte

Ordutegia: jaiegunetan eta astelehenetan izan ezik, 17.30 - 20.30  
Sta. Maria plaza, 4. Tel.: (943) 674811. Fax: (943) 673298

KULTURA ▶

# Poesia eta sentimenduen mundua

## III. Poesia Errezitaldia aurkeztu du Galtzaundik; Tolosako, Baionako eta Iruñeko 40 ikaslek eskainiko dute hilaren 24an

**ESTI EZEIZA**

Poesia eta sentimenduen mundua ezagutzeko eta olerkiak euskaraz gozatzeko aukera izango da hilaren 24an, Beotibar pilotalekuan. Atzo aurkeztu zuten Galtzaundi Euskara Taldekoek Udalaren laguntzaz antolatutako III. Poesia Errezitaldia.

Musika eta dantzaz lagunduriko poesia emanaldi honetan bost ikastetxeetako ikaslek hartuko dute parte, eta hauetariko hiru Tolosakoak izango dira: Hirukide-Eskolapioak ikastetxea, Laskorain Ikastola eta Orixeko institutua. Hauekin batera, Baionako Bernart Etxepare Lizeokoen eta Iruñeko Biurdana Institutuko enanek ere entzun ahal izango dira.

«Maitasuna, natura, bizitzaren legea eta Euskal Herria» izango dira gaztetxoek olerkie-

### ERREZITALDIA ▶

#### Helburu nagusiak.

▶ Poesiaren eta artearen kilima gazteei zabaltzea.

▶ Gazteek beraien sentimenduak adierazteko bide izatea.

**Berrikuntzak.** lazko parte-hartzaileez gain, Iruñeko Biurdana ikastetxeetako ere izango dira. 50 ikasle etorriko dira, eta hauetatik seik hartuko dute parte

tan landuko dituzten gaiak. Hauek guztiak haiek sortutako musikaz lagundurik entzun ahal izango dira. Guztira, DBH-ko eta Batxilergoko ehun ikasle inguru elkartzeko dira Beotibarren. Hauetatik 40 ariko dira eszenatokiak. Hona hurbildu nahi duenak ez du sarrera oraindu beharrik izango.

Iñaki Zubeldia Galtzaundiko ordezkariaren esanetan, errezitaldi honekin lortu nahi dena «gazteei poesia eta artearen kilima zabaltzea da eta, aldi berean, haien sentimenduak adierazteko bide izatea poesia». Hala, «euskara, artea eta sentimendua uztartzea» lortu nahi da errezitaldi honetan. Eta, bide batez, euskarak poesiari eta sentimenduak adierazteko duen balioa frogatu.

Andoni Iturzaeta Kultur zinegotziak ordezkatu zuen Udala atzoko aurkezpenean, eta jakinarazi zuenez, «hasieratik ongi hartu genuen egitasmoa». Era berean, zoriondu egin zituen antolakuntza lanetan aritutako guztiak.

Esan bezala, Tolosako ikasleez gain kanpokoek ere hartuko dute parte. Hori dela eta, gaztetxo hauek Tolosa ezagut dezaten, bidaiatxo bat antolatu



Ezker-eskuin: Andoni Iturzaeta, Angela Alamo eta Iñaki Zubeldia. E. E.

dute Tolosaldea Tour-ek lagundurik. Ibilbide hau eta gero, bazkari batekin indarrak berriitu eta entsegu lanetan hasiko dira Tolosaldeko ikasleeekin batera. Ondoren, 18:30ean, hasiko dute emanaldia.

Antolatzaileek adierazi dute-

nez, «azken orduko gertakariak direla eta», emanaldiaren kokalekia aldatu egin behar izan dute. Hasiera batean, Usabal kiroldegi berriaren egitekoak baziren ere, euri jasan ondorioz zorua kaltetuta dago, eta Beotibarren egin beharko dute.

KULTURA ▶

## 20 urte Santa Maria elizako mezak alaitzen

### Pepe Arzelus organo-jolea omenduko dute bihar Santa Maria Kaperak eta Udalak

**E. EZEIZA**

Hogei urtez Pepe Arzellusek Santa Mariako parrokiaren egindako lanari esker ona adieraziko diote bihar Santa Maria kaperak eta Udalak. Musutruk, organista lanetan aritu da goierritar hau, eta urte hauetako lana eskertzeko jai bat antolatu dute. Jokin Bildarratz Tolosako alkateak prentsaurrean adierazi zuenez, «omenaldia eskertza hori adierazteko modu bat da».

Duela hiru urte proposatu

zen omenaldiaren egitasmoa, baina aurtengora arte ezin izan dute martxan jarri. Eskertzan Santa Maria parrokiak, koroak, orkestrak eta Udalak hartuko dute parte.

Omenaldia 12:00etan hasiko da, elizkizunarekin. Eta nahiz eta meza horretan Pepe Arzelusek organoa jo, ez da iganderoa bezala izango. Honetan, Gorritik Santa Maria elizako organua estreinatzeko konposatu zuen lana joko du. Eta baita azken 40-50 urteetan abestu ez den Izaskungo Birjinenaren ere-



Omenaldiaren aurkeztu zuten udaltxearen Santa Maria Kaperako eta Udaleko ordezkariak. ESTI EZEIZA

serkiaren aspaldiko estrofa ere. Ondoren, udaletxera joango dira txistulariek gidatuta, eta bertan, opariaren banaketa eta alkatearen harrera egingo zaizkio. Ekitaldia Irene Larrazak kazetariak aurkeztuko du.

Orain dela bi hamarkada organista beharrean izan ziren

Santa Maria Kaperakoak. Hauek baldintza hauek bete behar zituen: organo-jolea ongi izatea, eta debalde lan egiteko prest egotea. «Arzelusek bi ezaugarri hauek betetzen zituen, eta sei hilabeteko proba izan behar zuena 20 urtetako lan bilakatu du». Santa Maria

Kaperakoek «musiko, ona, apala eta ixila» bezala definitu dute. Nahiz eta egun erretiratu egon, lanbidez autobus saltzailea zen lehen. Espainian zehar ibiltzen zen lanean, eta hainbat meritu egin behar izaten zituen garaiz iristeko Tolosara.

### iragarki laburrak ▶

**LANPOSTUAK**

**Suhiltzaileak.** Ertzaintza, polizia. 2006ean lanpostu berriak.

Informazioa: 943 313782.

**Administrari laguntzaileak.**

Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara, Soralue, Mutriku, Zizurkil,

Mendaro, Anoeta.

Hilean 1.500 euro. Doako informazioa. 943 313782.

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak:

Eusko Jaurilaritza, ikastetxeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782.

**Gidariak.** Udaletan eta Foru Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak.

943 313782.

**Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak.** Postu libreak Eusko Jaurilaritzan. Asteburuetan libre.

943 313782.

**Peoiak, langileak.** Igeltseroak, elektrizistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan.

943 313782.

**Aireportuak.** Bete behar dituzte:

harreragileak, aireko kontrolatzaileak, suhiltzaileak eta mantentze-lanerako langileak.

Informazioa: 943 313782.

**Harreragileak.** Telefonistak, hurrengo deialdiak erakunde publikoetan. 943 313782.

ZIZURKIL ▶ POLITIKA

# Jose Luis Geresta «erahil» zutela zazpi urte igaro dira

Urteurrenean, herriko ezker abertzaleak hainbat ekitaldi antolatu ditu biharko eta etzirako 'Ttoto'-ren omenez

ERREDAKZIOA

Jose Luis Geresta *Ttoto* zizurkildarra 1999ko martxoaren 20an Oreretako Zamalbide auzoan agertu zen hilik, eta gertaera horretaz orain zazpi urte betetzen direnez, Zizurkilgo ezker abertzaleak hainbat ekitaldi antolatu ditu *Ttoto*-ren omenez. Bihar mendi martxa, lore eskaintza Urkamendin, oimendia ekitaldia eta bazkaria egingo dituzte. Etzi, urteurrenaren egunean, lore eskaintza egingo dute hilerrian.

Orain zazpi urte gertatutakoa gogorazi nahi izan dute antolatzaileek, «*Ttoto*-ren hil-keta gerra zikinaren beste atal bat» dela adieraziz: «Ohikoa den moduan bertasio ofizialak suizidioaz hitz egin zuen hasierako unetik, baina gorpua agertu eta ondorengo egunean bertasio hori zalantzan eta kolokan jartzan zuten zehaztasun ugari ezagutu ziren». Horien artean, zizurkildarra hilik aurkitu aurretik polizia indarrek «kontrolatuta» zutela: «Gutxiarik astebete lehenagotik *Ttoto*-ren pistola eta dokumentazio faltsua Ertzaintzaren eskuetan zegoen. *Ttoto* berak hainbat pertsonari poliziari erabat kontrolatua zuela esaten zien, eta bere lehengusua bat jarraipen polizial horren testigu zuzena izan zen».

## Gorputzaren jarrera

Argigarriena gorputza nola topatu zuten izan zen, antolatzaileen esanetan: «Gorputza zurrin zegoen, besoak gorputza-

Jose Luis Geresta *Ttoto*. HITZA

## EKITALDIAK ▶

### BIHAR, HILAK 19

**09:00.** Mendi martxa Pedro Mari Otaño plazatik abiatuta.

**12:00.** Lore eskaintza Urkamendin.

**13:30.** Omenaldia Pedro Mari Otaño plazan.

ri itsatsita, esku-azpiak behe-rantz zituela, eta burua ere gora begira. Gai hauetan adi-tuak direnek esaten dutenez, justu gorputzaren posizio normala izango zenaren aurkakoa. Beraz, gorputza ipinia izan zela zirudien, eta Zamalbideko bizilagunek tiro hotsik entzun ez zuten, gorputza beste non-baitetik hara eramana izan zela pentsa zitekeen».

Beste datu bat ere bereziki aipatzen dute: «*Ttoto*-k tiroa buruaren eskuin aldetik zuen sartua, eta beraz, bere buruaz beste egin izan bazuen pisto-

**14:00.** Bazkaria Zentroan. Txartelak ohiko lekuetan salgai.

### ETZI, HILAK 20

**20:00.** Lore eskaintza hilerrian.

lak gorputzaren eskuin aldean agertu beharko zukeen; baina ez zen hala izan, gorputzaren ezker partean aurkitu baitzuen Ertzaintzak berak. Gainera, eskuin eskuko hatz lodia galtzen poltsiko barruan zuen *Ttoto*-k. Bestalde, pistolan ez zuten inongo hatz markarik topatu, aurretik garbitua izan balitz bezala».

Beste hainbat datu ere kontuan hartuz, *Ttoto*-ren sendiak eta ezker abertzaleak ez zuten «zalantzarik izan hil-keta hau estatu aparatuei leporatzeko» unean.

ZIZURKIL ▶ HEZKUNTZA

# Ikasleak protagonista Otañoeko Euskara Astean

Hitzaldiak, ipuin tailerrak, antzerkiak, gonbidatu ezagunak... antolatutakoak

ERREDAKZIOA

Datorren aste gutzian zehar Pedro Mari Otaño eskolan Euskara Astea antolatu dute. Ekitaldi ugari egingo dituzte, eta ez bakarrik ikasleei zuzenduta, baita gurasoei eta irakasleei zuzenduta ere. Eskola kanpotik etorriko diren gonbidatuek gain, ikasleek era gurasoek ere parte hartuko dute emanaldietan, haurrak izango badira ere protagonistak.

Etzi hasiko dira goizean eskola girotuz marrazki eta pankartak jarritz. 15:00etan, Pello Añorga ipuin kontalariak *Ipuin bat nola kontatu* azaldu die gurasoei eta irakasleei. Bitartean, ikasleek bideo emanaldia izango dute.

Asteartean, Alaitz Olaizola idazlearen txanda izango da. 10:00etan, liburutegian, 4., 5. eta 6. mailakoekin ariko da solasean. 15:15ean, gurasoek

eskainitako irakurketa saioa egingo dira.

Asteazkenean, 11:00etan, 5. eta 6. mailakoek Cromagnon gaiaren inguruan hitzaldia emango dute. 12:00etan, Andoni Egaña bertsolaria izango da 2., 3., 4., 5. eta 6. mailakoekin. 16:00etan, Haur Hezkuntzakoek *Naturari eraso* antzezlan eskainiko dute.

Ostegunean, Nerea Alias *Betizu* saioko aurkezlea izango da, 10:00etatik aurrera, Haur Hezkuntzako eta 1. eta 2. mailako ikasleekin. 12:00etan, 5. eta 6. mailakoek mamutak izango dituzte hizpide. 16:00etan, kantu, dantza eta txiste emanaldia 1., 2., 3. eta 4. mailakoen eskutik.

Ostiralean, azken eguna, 12:00etan, piratak izango dituzte hizpide 5. eta 6. mailakoek. Arratsalde osoan, jolasak izango dira frontoian gurasoentzat eta ikasleentzat.

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA

## Babestutako etxebizitzaren beharraz

Zizurkilgo Udalak babes ofizialeko eta tasatutako etxebizitzak eskainiko ditu udalerrian datozen urteetan, ohar baten bidez azaldu duenez. Babestutako etxebizitzaren beharra zenbatekoa den jakin nahi du eta, horretarako, zerrenda bat ireki du, bai udal bulegoetan, bai [www.zizurkil.com](http://www.zizurkil.com) web orrian. Bertan, datozen urteetan honelako etxebizitzak erosteko interesa duten bizilagunek izena eman ahal izango dute.

ANOETA ▶

## 'Oreka emozionala' ikastaroan izena emateko aukera

Anoetako eta Irurako udalek antolatu duten *Oreka emozionala* ikastaroaren izen-emate epea luzatu egin dute. Datorren ostirala arte, hilak 24, izango dute aukera ikastaroan interesatuta daudenean. Anoetako edo Irurako udaletxeetan eman dezakete izena.

VILLABONA ▶ ZINEMA

## 'Mixina' filma bihar Gurea aretoan

Gurea aretoan haurrei zuzendutako filma ikusteko aukera izango da beste behin. Bihar, 17:00etan, *Mixina* filma eskainiko dute. Sarrera 2,5 eurokoa izango da, eta proiektzioa euskaraz emango dute.

VILLABONA ▶

## 'Ikasgela hegalaria' filma ikasleentzat

*Euskara zine aretoetara* programaren barnean, Udaleko Euskara eta Hezkuntza batzordeak, etzi, hilaren 20an, eta 09:30ean, Tinkoren eskutik, *Ikasgela hegalaria* filma eskainiko du. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei zuzenduta dago saioa, eta Gurea aretoan izango da.


**parafarmazia**  
 • Haur elikadura  
 • Haurrentzako osagaiak  
 • Dermokosmetika  
 • Fitoterapia  
 • Ortopedia  
 Iurre auzoa, 7 • Tolosa  
 Tel.: 943 57 95 28 • [farmadenda@euskalnet.net](mailto:farmadenda@euskalnet.net)


**Beti Alai**  
*jatetxea*  
 Garaian garaiko janariak  
 Arraikiatan berezia  
  
 © 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA


**ARAMBURU**  
 Salgai (Tolosa),  
 Pisua San Frantzisko, 17 kalean. 140 m2.  
 Salgai (Tolosa),  
 Pisua Larramendi kalean. 112m2.  
 Salgai (Berrobi),  
 Pisua, baratza eta txabola. 168.000€  
 Salgai (Tolosa), Lokalak. Amaroiz auzoan,  
 Kale Nagusian eta Belate ibiltokian.  
 Salgai (Ibarra), Lokala 60m2.  
 Salgai (Tolosa), Garajeak Plaza Zaharrean, Pedro de Tolosa eta Leidorren.  
 Alokatzeko (Tolosa),  
 Lokal girotua, Foru kalepean.  
 Alokatzeko (Tolosa), Bi lokal komertzial ondoan, Laskorain kalean.  
 943 65 17 13 / 677 46 09 16

## AMEZKETA ▶

## Euskadiko Txapelketa ez da Zazpi-Iturrirentzat

Txapelketa bikaina eskaini dute pilotariek, baina azkeneko partidak kale egin die

N. URBIZU

Iragan asteburuan jokatu zituzten hainbat final Euskadiko Txapelketan. Ropon eta Legarreta binaka aritu ziren Huarateko Yoldi-Beroizen kontra, baina 22-6 amaitu zuten, galduz.

Igor Baezek ere ez zuen zorterik eduki eskuz banakakoan, eta emaitza bera lortu zuen Zornotzako pilotalekuan. Inuntziaga izan da aurtengo txapeliduna nagusien mailan.

Dena dela, oso pozik agertu dira Zazpi-Iturriko pilotariak eta ordezkariak, finalera iritsi baitira.

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
  - ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
  - ▶ Asteasu. Medikua: 692423
  - ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
  - ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
  - ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
  - ▶ Ibarralde. Osasun etxea: 672411
  - ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
  - ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
  - ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
  - ▶ Orendain. Medikua: 655595
  - ▶ Oresa. Medikua: 682228
  - ▶ Tolosa.
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurramendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## ALEGIA ▶ INGURUMENA

## Zuhaitzak landatu dituzte umeeak

N. Urbizu ▶ Intxaurren, urkiak eta haritzak landatu zituzten, atzo, Langaurren, Alegiako eskolako eta Aralar institutuko 1. mailako ikasleek. 4 urteko umetxoak ere ohitura eder horretako partaide izan ziren, zuhaitz gazteak zuloetan sartuz eta aitzurrak eskuetan hartuz. Langaurren bertan bazkaldu zuten nagusienek; txikiak exera bueltatu ziren. N. URBIZU



## ALEGIA ▶ BERTSOLARITZA

## Proiektuaren egoera onaz Bertsozaleen Batzar Nagusian

laz lortutakoak eta aurtengo erronkak aurkeztu dituzte, eztabaidarako aukerekin

NEREA URBIZU

Alegiako Kultur Etxean Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen Batzar Nagusia izan zen, herenegun iluntzean. Aitor Mendiluze idazkariak eta Felix Irazustabarrena lehendakariak zuzendu zuten batzarra.

«2005. urtea garrantzitsua izan da Gipuzkoako proiektuaren finkatzeari dagokionez». Aurtan, horrekin jarraituz proiektua finkatzea izanen du te helburuetako bat. Elkarte bezala «sendotu» egin nahi dute. Elkartearen erronken artean idazkaritzan hobekuntzak ematearena izango da, besteak beste, ez baitu lanaren dispersioak errazten antolakuntzari dagokionean. Kezka edo erronka autofinantzaketa dute elkartekoek; iazko ildotik jarraituz, aurtan %97,5ekoa izatera iritsi nahi dute.

Iazko xedeetako bat ere bertsolarien plazaratzearen plangintza bat prestatzea izan zen; baina txapelketen antolakuntzak zirela alde batetik, eta bestetik bertsolari taldeen inplikazio eskasarengatik ezinezkoa izanenez, aurtengo egitasmo izatera pasatu da, «parte-hartzaile posibleen inplikazioa eskasa bada ere», Aitor Mendiluze idazkariak zioen moduan. Bestalde, 2007. urteko Gipuzkoako Txapelketa prestatzen hasi behar dute, lekua, eskemak, datak eta egin beharreko guztiak zehazteko.

Bertsozaleen elkarteak bi proiektu hartu zituen bere gain

iaz: bertso eskolen sarea eta hezkuntza arautua. Orokorrean, bertso eskolekin berdinarritzea nahi dute; hau da, sendotuz joan, eta parte-hartzea bermatu. Aldi berean, Gipuzkoako Bertso Eskolen II. Eguna antolatuko dute.

Hezkuntza arautuari dagokionean, asko zabaldu da: duela 3 urte 800 ikasle izan zituzten, eta 2005ean, aldiz, 4.000. Hazkundera «karagarria» izan da, eta aurtan beste 1.000 ikasle lortzea espero dute, lurralde berrietan sartuz.

## Zuzendaritza bera

Aurtengo zuzendaritza taldea berdinaritza mantenduko dute: bozketarik egitea ez da ia behar izan, jendea «pozik eta ados» zegoelako. Zuzendaritza taldean aurtan ere eskualdeko hurrengoak egongo dira: Iruran bizi den Aitor Mendiluze idazkari, eta Felix Irazustabarrena alegiarra lehendakari.



Aitor Mendiluze idazkaria eta Felix Irazustabarrena lehendakaria. N. U.

Hara bertaratu zirenek mintzagai eta aztergai izan zituzten gai batzuk, besteak beste, txapelketak egiterako orduan zein den leku aproposa, edo zein diren toki posibleak.

Aurrerantzean erritmo berean lan egiten jarraitzea espero dute, proiektua sendotuz eta jendearen parte-hartzea ere zabalduz, esaten dena hitz soiletan geratu ez dadin.

## iragarki laburrak ▶

## ALOKERA

**Garajea.** Garajea itxia alokatzen da Iruran. 646 48 76 01.

**Pisua.** Alokera hartzeko, pisu bila nabil, leihoak iparralderantz dituen. 678 25 05 66.

## LANA

**Etxeko lanetarako.** Alegian neska bat behar da etxeko lanak egiteko, 10:30etik 12:30era. Interesatuak

deitu 943 65 30 34ra.

**Tabernaria.** Anoetan, neska euskalduna behar da tabernan lau ordu lan egiteko, esperientzia duena. Deitu 635 745 291ra.

## SALGAI

**Furgoneta.** Furgoneta salgai W-Kalifornia. 5 TDI, 2002koa. Oso egoera onean, Interesatuak deitu 626 73 73 77ra.


**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

## Zeuk idatzi.

Tolosaldearekin eta Leitzaldearekin zerikusia duen edozein albiste sar dezakezu webean.

Edozeinek bidali dezake, eta ondoren, Tolosaldeko HITZAKO kideren batek kudeatuko du bidalitakoa.

## LIZARTZA ▶ HEZKUNTZA

# Eskolaren XVII. Astea, ekitaldiz beterik

Ikasleentzat nahiz gurasoentzat ekitaldi ugari izango dira: puntu txapelketa, jaialdia, bizikleta martxa, egun-pasa...

IÑIGO TERRADILLOS

Hurrengo astean ospatuko dute Lizartzako Eskolaren XVII. Astea. Bertako ikasleek eta hauen gurasoek, beraz, hainbat ekitaldiz gozatzeko aukera izango dute asteak irauten duen bitartean.

Gaztetxoentzat antolatutako tailerrekin emango diote hasiera asteari astelehenean; egun horretan gurasoek puntu txapelketan hartuko dute parte. Asteko beste ekitaldi nagusia Berastegiko eta Berrobiko lagunren bisita izango da, eta egitaraua amaitzeko ohiko moduan egun-pasa egingo dute ikasleek eta irakasleek.



Pasa den urteko une bat. i. t.

## EGITARAUA ▶

## ASTELEHENA

14:30. Irakurketa saioa.  
19:00. Puntu txapelketa.

## ASTEARTEA

19:00. Jaialdia.

## ASTEAZKENA

14:30. Bizikleta martxa.  
19:30. Afari-merienda.

## OSTEGUNA

14:30. Berastegiko eta Berrobiko lagunren bisita.

## OSTIRALA

14:30. Egun-pasa.

## PRESOAK ▶

## Urtebete beteko da bihar Altuna eta Aranalde atxilotu zituztela

Ibarrako Etxerat-ek kartzelan bizi duten egoera salatu du

## I. TERRADILLOS

Bihar izango da lehenengo urteurrena Maite Aranalde ibartarra eta Haimar Altuna izartzarra atxilotu zituztela, eta Ibarako Etxerat-ek kartzelan bizi duten egoera salatu du.

Ibartarraren kasuan, Fresnes-en dago, 900 kilometrotara, «horrek bisitak egiteko dakartzan zailtasunekin». «Lehenengo 6 hilabetetan ama, amona eta anaiaren bisita bai no ez zieten onartu, eta telefo-

no bidez ere ezin du hitz egin». Lizartzarra, berriz, Meaux-en dago, 950 kilometrotara. Lehenengo 3 hilabeteak isolatuta eduki zuten. 15 eguneh behin jaso ditzake bisitak, eta ordubetakoak eta orduerdikoak dira, «baina hori ez da beti betetzen; gainera, Frantzian ez dago bisarik». Bestalde, «bidalitako diruarekin nahi duten bezala jokatzeko dute, eta askotan ez diote guztia ematen».

Ion Mindegiagaren egoera ere gogoratu nahi izan dute;

izan ere, «3 aldiz atzeratu dute bere aurkako epaiketa, eta urriaren 1ean 4 urte beteko dira atxilotu zituztenetik». Halaber, hilaren 25ean Ekaitz Aramendiren eta Eider Ijurkoren atxiloketen urteurrena dela kontuan hartuta, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte «lau preso politikoen omenez».

Bestalde, Etxerat-ek gogoratu du hilaren 26an Miarritzeko Kasinoan, 09:30ean, *Etxean nahi ditugu* lelopean, bosgarren batzarra egingo dutela.

## IBARRA ▶

## Ibilgailuen zergak ordaintzeko epea

Ibarrako Udalak herritarrei jakinarazi nahi die apirilaren 15era bitarte kobratuko direla 2006. urteari dagozkion trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko udal-zergaren ordainagiriak. Epe hori igaro ondoren, bide exekutiboak kobratuko dira, %20ko gainkar-guaz. Halaber, ordainagiri horiek edozein kutxa edo bankutan ordaindu ahal izango dira.

## IBARRA ▶

## Udalak ura ezin daitekeela edan ohararazi du

Ibarrako Udaletik jakinarazi dute udal sareko ura ezin daitekeela edan. Ur hori soilik janariak prestatzeko erabili ahal izango da, 10 minutuz irakinez gero edota ur litro bakoitzeko lejia tanto bat bota eta erabili aurretik 30 minutuz pausatzen utziz gero.

## BELAUNTZA ▶

## Aranalderen omenezko plaka jarriko dute bihar

Bihar, San Jose egunean, inauguratuko dute Jose Mari Aranalderen omenez egin duten plaka. Oroigarria herriko ermitan jarriko dute, eta 12:00etako mezaren ondoren izango da inaugurazioa. Inaugurazioa dantzarien eta txistularien saioek osatuko dute.

## IBARRA ▶



Itziar Arratibel Eritreari buruzko hiltzaldia eskaintzen. HITZA

## Bihar amaituko da Aste Misiolaria

Ibarratik Misisio Taldeak antolatutako Aste Misiolariaren baitan, bihar, Hondurasen, Bombain eta Eritrean dituzten proiektuak laguntzeko dirua bilduko dute. Modu horretan amaituko dute aurten Aste Misiolaria. Bestalde, datorren larunbatean, hilaren 25ean, Elkartasuneko Aerobik Maratoia egingo dute Ibarako Belabieta kiroldegian, eta bertan bildutakoa ere Ibaratik Misisio Taldeak dituen proiektuetara bideratuko dute.

**LEHENENGOAK** DIESELAREN SUKARRA CITRÖËNEN

HOTI TEKNOLOGIA BARRIENA ESKAINTZA EZIN HOBETIKIN

|                                                                               |                                                                                               |                                                                                               |                                                                                                |                                                                                              |
|-------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>CITRÖËN C1</b><br>Citröen koloreko<br>69 g/km-ko<br>8.080 € <sup>IVA</sup> | <b>CITRÖËN C2 HDI</b><br>2.500 €<br>Citröen koloreko<br>129 g/km-ko<br>8.320 € <sup>IVA</sup> | <b>CITRÖËN C3 HDI</b><br>2.500 €<br>Citröen koloreko<br>129 g/km-ko<br>8.030 € <sup>IVA</sup> | <b>CITRÖËN C5 HDI</b><br>4.000 €<br>Citröen koloreko<br>129 g/km-ko<br>17.320 € <sup>IVA</sup> | <b>SEAT PICASSO</b><br>4.550 €<br>Citröen koloreko<br>129 g/km-ko<br>13.000 € <sup>IVA</sup> |
|-------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------|-----------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------------------------------|

**CITRÖËN C4 HDI**  
3.000 €  
Citröen koloreko  
129 g/km-ko  
11.830 €<sup>IVA</sup>

**HILABETE BUKAERARARTE**

**IROVI, S.A.** Citroën Konzesionario Ofiziala - Industriakoa s/g. Tel.: 943 65 18 42. Anoeta / Tolosa

**CITRÖËN**

LEITZA ▶ EUSKARA

# Herriko eragileek «eskolak euskaldundu» daitezzen sinatu dute

Astelehenetik aurrera herritarren sinadurak biltzeari ekinen diote, hilaren 25ean jaialdi batekin bukatzeko asmoz

JAIONE ASTIBIA

Herriko 26 eragilek eman diote bere atxikimendua «eskolak euskaldundu» eskaerari: herriari jarduten duten alderdi politiko abertzale guztiak, LAB eta EHNE sindikatuak eta euskara, hezkuntza, kirola, kultura, elkartasuna, gazteria... eta bestelako arloetan lan egiten duten gizarte eragileak daude tartean.

Euskal Herriko ikastetxeetatik ateratzen diren ikasleen %68,2k ez luke euskararen ezagutzazko probarik gaindi-

tuko orain berriro plazaratu diren datuen arabera. Irakaskuntzan egun ezarrita dagoen hizkuntz politika «agortuta» dagoela frogatu dute datu hauek, eta «ikasleen euskalduntzea benetan bermatuko duen» beste hizkuntza politika berri bat osatzea beharrezko dela agerian utzi.

Nabarmendu dutenez, Nafarroa eta Iparraldean, gainera, «euskara bera ikasteko aukera bera» da ukatzen dutena; horrela, «irakaskuntzatik euskara kentzeko Nafarroako Gobernuaren eginahalak», ekarri di-

tuzte gogora, «Vascuencearen Legeak ezarritako zonifikazioa betikotzea kasu», besteak beste. Honen harira, «Amazabal institutura atezain erdalduna ekartzea nahikoa ez eta, sukaldaria ere» hala egin dutela aitatu dute.

Hortaz, datorren aste osoan, herritarren sinadura bilketa egitekoak dira. Egutero, udalarekin, Maimur eta Astiz liburudendetan egin daiteke; astarterean, ikastetxeetan ariko dira; ostiralean, eguerdian plazan eta gauean, Torrean. 25erako jaialdia ere iragarri dute.

BANAKAKO URREZKO AIZKOLARIA ▶

## Rekondok eta Otañok kanporaketak dituzte

Gaur-biharretan, Banakako Urrezko Aizkolarien Txapelketan jokatu dute

ERRREDAKZIOA

Aurreko saioak irabazita, Rekondo leitzarrek eta Otaño ibartarrak Banakako Urrezko Aizkolarien hurrengo kanporaketak jokatu dituzte, Urrezko mailan biek ere, hurrenez hurren, Bakion eta Legorretan, gaur eta bihar.

Bizkaikora joan behar du Rekondok, 19:00etan hasiko den herri kirol jaialdian parte har-

tzera. Bera Jose Juan Barbere-narekin lehiatuko da, eskarmentu handiko aizkolaria eta favoritotzat jotzen dutena. Kanporaketa honetako garaileak Etxebeste izanen du zain hurrengoan. Maila honetako beste kanporaketa bat ere kokatu dute egun horretan berean, Mugertza eta Zubiagaren artekoa, eta gaztetxoan mailako sailkapenari ere ekinen diote. Perurena aita-semeen era-

kustaldiarekin osatuko dute jardunaldia.

Legorretan da beste hitzordua, bihar, 12:30ean, eta han izanen da Otaño. Kasu honetan, Patxi Mindegia izanen du arerri, txapelketa honetako aurreko jardunaldian berragertu den Zubietako aizkolaria, ikusmin handia eraginez, gainera. Hemen ere lehia bizia ziurtatuta dago, jakina baita Otaño bera, Lasa lagun duela. Olasagastiren aurkako apustua prestatzen ari dela; horrela, neurgailu ona izan dezake ibartarrak. Irabazleak, kasu honetan, Txaparategirekin izanen du hurrengo borrokaldea. Jaialdi honetan berean eta Urezko mailan ere, Erdozia eta Lasa neurtuko dira; gaztetxoan beste saio bat ere izanen delarik.

LEITZA ▶ KULTURA

## Kantuzale jaialdian ariko dira herriko hiru talde

Gaur, 18:00etan, Elizondoko Lur aretoan egingen duten festan kantatuko dute umeek

J. ASTIBIA

Euskal Kantuzale elkarteak antolatutako kantu jaialdian parte hartuko dute Leitzako hiru gaztetxo taldek.

Lehen txapelketa egiten bazuten ere, aurten «lehia kutsua kendu nahiz», jaialdiak antolatu dituzte, herrialdeko hainbat tokitan: «Kantuarekin gozatzea nahi dugu, urduritasunak alde batera utzita, lagun taldean bezala gustura sentitzea, kantuzaleasunari garrantzia ematea».

Aurreko asteburuan Barñainen egin zuten saioa; oraingoan Elizondori dagokio. Lur aretoan, 18:00etan, han izanen dira Leitzatik joanak, hiru talde: bakarlari gisa ariko da Erbiti, Gerra pianoan duela, *Baldorba* abestuko du; Erleta eskolako 5. mailakoek, *Iluntzean* kantua eskainiko dute, eskusoinuan Intxausti, pianoan Alonso eta txirulan Loidi direla; eta 6. mailakoek, berriz, *Bizitzarekin dantzan* kantua aukeratu dute, Portas pianoan dela.

INGURUMENA ▶

## Euri gehien egin duen laugarren herria, Leitza

Martxoaren 10etik 11ra, 96 litro euri jaso dituzte Luisen Bordan; Areson, 60,7 litro

ERRREDAKZIOA

Gaur zortzi gainezka zihoazen inguru hauetako errekek. Ez da harritzekoa ere. Izan ere, metro karratuko 96 litro euri egin zituen Leitza; egun hartan Artikutzan jaso ziren Euskal Herriko daturik altuenak, 110,9 litro eurirekin.

Herrialdean haren tankerako beste neurketa batzuk ere jaso ziren: Amaiurko 109,5 litroak edo Etxalarko 106,4 litroak. Egutegian euriarik gehien egin zuen herrien artean izan zen Leitza ere, aitatutako horien jarraian. Luisen Bordan hilaren 10eko 08:00-etatik 11ko 08:00-etara jasotakoak dira horiek. Areson, ga-



Leitzararen gainezka, 11n. J. A.

rai berean, Gereñoneko meteorologia estazioan 60,7 litro euri jaso zituzten, kilometro gutxi batzuen tartean (5-6 zuzenean) dagoen arren.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

# Gipuzkoan

# 50.000

# etxetara

**ESKELAK**

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Leaburu.** Hilaren 26an bazkaria egingo dute Larresoroko herritarrekin Asteasuko Sarasola sagardotegian. Izen-ematea, udal bulegoetan (943 67 59 31).  
**Lizartza.** XVIII. Insaluz Txirindulari Saria. 15:30ean abiatuta. Otsabio Kirol Elkartek antolatuta.  
**Tolosa.** Santa Maria kaperak eta Udalak omenaldia egingo diote Pepe Arzelus organistari bihar. Bazkarirako txartelak salgai daude Zabala estankotan, Lardiesen eta Santa Marian.  
**Tolosa.** Gerontologikoaren aldeko plataformak zentro berri bat eskatzeko sinadurak biltzeko mahaiak jarriko ditu Trianguloan, Berdura plazan eta Iparragirren, 11:30etik 13:00etara.  
**Tolosa.** EHNAREN tramitazioa. 11:00etatik 13:30era, udaletxean.  
**Tolosa.** Udaberri dantza taldeak erromeria egingo du apirilaren 1ean. Jaiari amaiera emateko afaria antolatu dute, Abastosen. Kimetz arropa dendan eta Garikano zapata dendan daude salgai txartelak.  
**Tolosa.** Pirritx eta Porrotx. 18:30ean, Beotibarren.  
**Tolosaldea.** Bai eskolak euskalduntzeari sinadura bilketa. 11:00etatik 13:00etara, Tolosan, Ibarren eta Villabonan.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Jose Luis Albizuren koadroak. Hilaren 21a arte, Jubilatuen tabernan.  
**Leitza.** Manuel Lasarte: bizitza eta sorkuntza. 26ra arte, udaletxean.



**Anariren kontzertua, gaur, Bonberenean**

**TOLOSA ▶** Astebururo legez, gaur ere kontzertu aparta antolatu dute Bonbereneakoek. Anari bakarleri azkoitiarrak zuzeneko emanaldia eskainiko du etxean. *Zebra* bere azken laneko doinuak eskainiko ditu, besteak beste, Bonbereneako taula gainean. 22:30ean hasiko da saioa. Argazkian, Azkoitiko Mataderoan, *Zebra*-ren aurkezpen kontzertuan. NEREA URANGA / UROLA KOSTAKO HITZA

**Tolosa.** Dorleta Ortiz de Elgearen pinturak. Apirilaren 1a arte, Aranburun.  
**Tolosa.** *Poesia movil.* Enrique Zalduaren pinturak. Apirilaren 22ra arte, Aranburu Jauregian.

**JAIK**

**Berastegi.** 16:00etan, mus txapelketaren finala; 18:30ean, sagardo dastaketa; 19:30ean, bertso saioa; 00:30ean, Laiotz.

**ZINEMA**

**Villabona.** *Mixina.* Bihar, 17:00etan, Gurean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Larraia, M. I. Elbarren, 95. 112  
**Tolosa.** Ebebeste, J. M. Gernikako arbola, 3. 943 65 10 40.

**IRRATIA**

**Txolarre (107.5, 101.2 FM)**  
10:30-13:00. *Hitzak* hegari: agenda, porra, elkarrizketak, *Mundurako lehioa*, kolaboratzaileak, disko eskainiak...

**Goiko irratia (107.0 FM)**  
13:00. *Komerra* magazina. Posta elektronikoa: komerra@hotmail.com

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**



**URTE ASKOAN**  
Aratz Labaien.  
10 urte. Zorionak eta ondo pasa familiaren partetik.

**Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.**  
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

**hitza**  
agurren tartea

**SOROENEA DENDAK ANTOLATUTA**  
**HITZALDIA**

**"JATEN IKASI"** AZKEN IKERKETAK ELIKADURA ETA OSASUNAK ELKARREKIN DUTEN ERLAZIOAREN INGURUAN

Elikaduran aditua den Javier Arozena biologoaren eskutik  
**Eguna:** Martxoaren 22an, asteazkena  
**Ordua:** 19:30ean • **Lekua:** Tolosaldeko kultur etxean  
**OHARRA:** Aurrerago SUKALDARITZAKO IKASTAROA egongo da. Lekua: Ero Etxe elkarte. Telefonoa 943 01 68 68

**hitza txokoa** lagunen

▶ **HONEKIN** ileapaindegian zerbitzu osoa eta ilearen tratamendurako bi produktuen zozketaren irabazlea:

**JOSUNE LASA AROSTEGI (ABALTZISKETA)**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

**ESTILISTAK**  
**honekin**